Bestelako Xedapenak

JUSTIZIA ETA HERRI ADMINISTRAZIO SAILA

4769

EBAZPENA, 2010eko irailaren 23koa, Funtzio Publikoko zuzendariarena, interesdun izan daitezkeenei epea jartzen diena, alderdi bezala ager daitezen Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietako Salan jardundako 774/10 prozedura arruntean.

Ebazpen honen bidez jakinarazten da Funtzio Publikoko zuzendariak 2010eko irailaren 23an ebazpena eman zuela ondoko prozedurari buruzko administrazio espedientea Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietako Salaren esku uzteko:

774/10 prozedura arrunta: Miren Idoia Urrutia Ortiz de Coscak 2010eko apirilaren 16ko Aginduaren aurka aurkeztutako administrazioarekiko auzierrekurtsoa. Agindu horren bidez EAEko Administrazio Orokorreko administrarien kidegoan karrerako funtzionario izateko hautatze-prozesua deitu zuen Justizia eta Herri Administrazioko sailburuak.

Prozedura honek gorago aipatu hautatze-prozesuko ebazpenari eragin diezaioke.

Horregatik, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 49.1 artikuluan agindutakoa betez, hau

EBATZI DUT:

1.– Espediente horretan interesa izan dezaketenei bederatzi eguneko epea ematea, EAEko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietako Salan azaldu eta aipatu prozeduran alderdi gisa pertsonatu daitezen.

2.– Ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea.

Vitoria-Gasteiz, 2010eko irailaren 23a.

Funtzio Publikoko zuzendaria,
M.ª LUISA CUESTA ARANDILLA.

Otras Disposiciones

DEPARTAMENTO DE JUSTICIA Y ADMINISTRACIÓN PÚBLICA

4769

RESOLUCIÓN de 23 de septiembre de 2010, de la Directora de Función Pública, por la que se emplaza a los posibles interesados en el Procedimiento Ordinario 774/10 seguido ante la Sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco a fin de que puedan personarse como parte en el mismo.

En virtud de esta Resolución se hace publico que la Directora de Función Pública, con fecha de 23 de septiembre de 2010 ha dictado Resolución por la que se dispone la remisión a la Sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco del expediente administrativo relativo al siguiente procedimiento:

Procedimiento Ordinario 774/10: recurso contencioso-administrativo interpuesto por Miren Idoia Urrutia Ortiz de Cosca contra la Orden de 16 de abril de 2010, de la Consejera de Justicia y Administración Pública por la que se convocó el proceso selectivo para el ingreso como funcionario de carrera del Cuerpo Administrativo de la Administración General de la CAPV.

Este procedimiento puede afectar a la Resolución del proceso selectivo anteriormente referido.

Por ello, de conformidad con lo preceptuado en el artículo 49.1 de la Ley Reguladora de la Jurisdicción Contenciosa-Administrativa, redactado por la Ley 29/1998 de 13 de julio.

RESUELVO:

1.– Emplazar a los posibles interesados en el referido expediente para que puedan comparecer en el plazo de nueve días ante la Sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco y personarse como parte en los procedimientos antes citados.

2.– Ordenar la publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 23 de septiembre de 2010.

La Directora de Función Pública,
M.ª LUISA CUESTA ARANDILLA.